

### **BELTRAN DE ETXAUZ-en 1584ko GUTUNA**

Egunotan, Sokoako erretor eta euskal-idazle andi izan dan Peru Larzabal zanaren illeta-meza izan dala-ta, entzun eta irakurri dogu, Baionako apezpiku jaunak, jaiotzaz Euskal-erritik urrunekoa dan arren, euskera ikasi dauala eta euskeraz itz egiteko gai dala, illeta aretan egin eban lez.

Egia esan, Baionako gotzain-aulkian izan da eteizgizonik, euskera gotzain eginda gero ikasi bear izan ez ebanik. Asko izan dira euskaldunak ango gotzainiak, eta amaren altzoan ikasita jakin eban euskeraz egiten. Olakoxea dogu bat, amaseigarren gizaldian jaio eta 1598ko urtea ezkeron 1618ra artean Baionako gotzain, apezpiku izana, Bertran edo Beltran Etxauzekoa, Baigorriko semea, ango Etxauztarren jauregian 1556 edo 57n jaioa. Amaseigarren gizaldi orren barruan bertan, beste gotzain euskaldun bi ezagutzen ditugu Baionan: Lahet edo Lehet abizenekoa, 1504tik 1507ra, eta Joannes Sossiondo, 1567tik 1579ra.

Gure Beltran Etxauzkoaren izena eta euskalduntasuna ez da aitzuko Axularren *Gero* euskerazko liburuaren ospeak euskaldunen gomutan bizirik iraungo dauan artean. *Gero* irakurri dauanak badaki nori eskifii eutsan Sarako erretor andiak bere liburu ori eta zein gora jasoten dauan bere gotzain izan eban Etxauztarren euskalduntasuna eta euskaldunei eutsen maitasuna. Baiña gaur badogu beste argibiderik Etxauztar orren euskalduntasun jatorra ezagutzeko. Eun urtetik gora da Beltran Etxauz-